

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2023 Foru Dekretua, urriaren 31koa. Onestea interes orokorreko 2023rako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, bat etorritik irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak ezarritakoarekin

Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.

Hain zuzen ere, foru arau horren 31. artikuluan 1. apartatuak dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes orokorreko helburuen esparruan, bai eta erakunde onuradunek eta jarduera edo programa horiek bete behar dituzten betekizunak eta baldintzak ere.

Gainera, ezartzen da Arabako Foru Aldundiak mezenasgo jarduerak eta programak lehentasunezko zatik jo ahal izango dituela, bai bere ekimenekoak, bai beste pertsona edo erakunde batzuenak, eta lortzen dituen baliabideak zuzenean kudeatu ahal izango dituela, edo zeharka foru arau honek 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten irabazteko xederik gabeko erakundeetan parte hartzearen bidez.

31.1 artikuluan arabera, lehentasunezko mezenasgo jardueretarako eta programetarako bideratzen diren diru zenbatekoek araubide berezi bat dute. Diru zenbateko horiek garbiak eta soilak izan behar dira, eta ezin dute izan inolako kontraprestaziorik. Araubide berezi hori honetan datza, laburbilduta:

a) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorren bitartez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunezko zatik jotako jardueretarako erabilitako kopuruen ehuneko 45 ken dezakete kuota likidotik (publizitate babeseko kontratuak eta lankidetzak hitzarmenak direla bide emandako kopuruak barne).

Lehentasunezko jardueren berri zuzenean zabaltzeko propaganda eta publizitate gastuak egitea bada doako zerbitzugintza, kenkariaren oinarria gastuaren edo inbertsioaren guztirako zenbatekoa izango da, baldin eta publizitate euskarriaren edukian berriak aipatzen bada lehentasunezko jardueren zabalkundea. Bestela, kenkariaren oinarria gastuaren edo inbertsioaren ehuneko 25 izango da. Hori guztia, betiere Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak horri buruz ezarritako baldintzak betetzen badira.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunezko zatik jotako jarduera eta programetarako erabilitako kopuruen ehuneko 45 kendu ahal izango dute kuota osotik (publizitate babeseko kontratuak eta lankidetzak hitzarmenak direla bide emandako kopuruak barne).

Horiek horrela, foru dekretu honen bidez, zehazten da 2023ko ekitaldirako zer jarduera edo programa izango diren lehentasunezkoak, bai eta zer baldintza eta prozedura ezarriko diren zenbait jarduera lehentasunezko zatik izendatzeko ere, guztia ere Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak 31. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da betetzea Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 31. artikuluko gaikuntza.

2. artikulua. 2023an lehentasuna izango duten jardueren zerrenda

Bat. Honako jarduera edo programa hauek izango dira lehentasunezkoak 2023ko ekitaldian, Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 31. artikulua onorioetarako.

a) Gizarte zerbitzuen esparruan:

Gizarte zerbitzuen arloko jarduerak gauzatzen dituzten eta onura publikokotzat jotako gizarte izaerako erakundeei emandako diru zenbatekoak.

Ondorio horietarako, lehentasunezko jarduerak izango dira soilik hauek:

1. AFA ARABA, Alzheimerra eta beste demenzia batzuk dituzten pertsonen senide eta lagunen Arabako elkarte.
2. Isabel Orbe, Araban Down Sindromea dutenen aldeko elkarte.
3. HOGAR ALAVÉS ongintza eta kultura elkarte.
4. ASPANAFOHA, haur onkohematologikoen gurasoen eta gaitza dutenen elkarte.
5. Arabako Hiesaren aurkako Hiritarren Batzordea.
6. APDEMA, Adimen desgaitasunen bat duten pertsonen aldeko Arabako elkarte.
7. ATECE, Hartutako Burmuineko Gaitzaren Arabako Elkarte.
8. Usoa Tutoretza Fundazioa.
9. Buruko gaixotasuna duten Arabako pertsonentzako Beroa Tutoretza Fundazioa.
10. Lankidetzarako ingeniaritza elkarte.
11. Gasteizko Arabako Elikagai Bankua, elikagaiak xahutzearen aurkako Gasteizko elkarte.
12. Espainiako Gurutze Gorria, Arabako lurralde historikoan garatu dituen jarduerengatik.
13. Gasteizko Elizbarrutiko Caritas, Arabako lurralde historikoan garatu dituen jarduerengatik.
14. Atalaxia-telangiektasia Familien Espainiako Elkarte, Arabako lurralde historikoan garatu dituen jarduerengatik, Gasteizen egiten den Aitzina Folk Festival jaialdi solidarioa barne.
15. Aspace Araba, elbarritasun zerebralaren eta antzeko gaitzen elkarte.
16. Itxaropena, ikusmen urritasuna duten pertsonen Arabako elkarte.
17. Doble Sonrisa fundazioa.
18. Arabako Foru Aldundia, zerbitzu soziosanitario publikoei dagokienez.

b) Ingurumenaren esparruan:

1. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako naturagune babestuetako ingurumena berreskuratu, kontserbatu, ikertu eta zabaltzeko programetarako.

2. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako Lurralde Historikoko foru bizikleta bideak eraiki, hobetu eta onik zaintzeko obrak finantzatzeko.

3. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea eraiki, hobetu, onik zaindu, sustatu eta zabaltzeko.

4. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako ingurumenaren osotasun ekologikoa leheneratzeari dagokionez.

c) Garapen teknologikoaren esparruan:

Ondorio horietarako, lehentasunezko jarduera izango da soilik Eduardo Anitua Fundazioa.

d) Kulturaren esparruan:

1. Arabako Artium Fundazioa.

2. Santa Maria Katedrala Fundazioa

3. Gasteizko Jazzaldia Elkartea.

4. Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola.

5. Gasteizko Arte Sakratuaren Museoa.

6. Arabako Arte Ederren Museoa.

7. Arabako Natura Zientzien Museoa.

8. Arabako Arma Museoa.

9. BIBAT, Arabako Arkeologia Museoa.

10. BIBAT, Arabako Fournier Karta Museoa.

11. EHUri emandako diru zenbatekoak, Iruña Veleiaren eta Arkaiako erromatar termen arkeologia proiektuak gauzatzeko.

12. Artziniegako Etnografia Museoa.

13. Euskaltzaindia.

14. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea.

15. Eusko Ikaskuntza.

16. Arabako Foru Aldundia, euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunak zaharbertzeari edota birgaitzeari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren, toki erakundeen, udalen eta kuadrillen jabetzako babes bereziko, ertaineko eta oinarrizko mailetan.

17. Arabako Foru Aldundia, babes bereziko edo ertaineko kultura ondasuntzat jotzen diren arkeologia zonak ikertzeari, berreskuratzeari, hobetzeari, kontserbatzeari, sustatzeari eta zabaltzeari dagokionez.

18. Añanako Gatz Harana Fundazioa.

19. Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako Gune Elkartua.

20. Azkena Rock Festival sustatu eta antolatzeko ARF Vitoria-Gasteiz SL enpresari emandako diru zenbatekoak.

21. FesTVal Gasteizko telebista eta irrati jaialdia sustatu eta antolatzeko Fila 2 kultura elkarteari emandako diru zenbatekoak.

22. Asparreneko Umore Antzerkiaren XXX. Jaialdia antolatzeko Asparreneko Udalarari emandako diru zenbatekoak.

23. Arte eszenikoekin loturiko jarduerak sustatu eta antolatzeko Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak.

24. Añanako kuadrilla, Micaela Portilla lantegi eskola dela-eta.
 25. Arabako Foru Aldundia, Arabako lurralde historikoko agiritegian dauden agiri historikoen artxibatzea dela-eta.
 26. Arabako Foru Aldundia, Santa Katalina Lorategi Botanikoaren berreskuratzea, hobetzea, zaintza, sustapena eta zabalkundea dela eta.
 27. AAVOZ, Opera eta Zarzuelaren Araba eta Gasteizko Lagunen Kultura Elkarte.
 28. Sancho el Sabio Fundazioa.
 29. Teatro Paraisori emandako diru zenbatekoak, Haziaraba programak eta Antzerkia Eskolan kanpaina sustatzeko eta antolatzeko.
 30. PorpolTeatrori emandako diru zenbatekoak, Gasteizko Arte Eszenikoen Lantegia sustatu eta antolatzeko.
 31. Panta Rhei Antzerkiari emandako diru zenbatekoak, landa inguruneko arteen Festikale jaia sustatzeko eta antolatzeko.
 32. Apika, Arabako Ikuzentzunezko Ekoizle Burujabeen Elkarte.
 33. DIGA, Arabako Diseinu Grafikoaren Profesionalen Elkarte.
 34. Arabako liburu saltzaileen gremioa.
 35. Artekale, Euskadiko Kaleko Arteen Elkarte.
 36. Karraskan, Euskadiko berrikuntza kulturen eta berrikuntzaren kultura sustatzeko elkarte profesionala.
 37. Eskena, Euskadiko ekoizpen eszenikoko enpresen elkarte.
 38. ADDE, Euskal Herriko dantzako profesionalen elkarte.
 39. Euskal Irudigileak (APIE-EIEP), (IRUDIKA, Gasteizen).
 40. Garaion Naturarte Elkarte (Ozeta).
 41. Moare Dantza Taldea (Azala, Lasierra).
 42. Hunkitu Arte, Poetak maiatzean jaialdiaren proiekturako.
 43. Kultura Kalean! elkarte, Korterraza proiekturako.
 44. Parasite Kolektiboa (Baratza), Zurrumbilo Festibalerako.
 45. Arabako Argazkilaritza Elkarte.
 46. Erakusmeta Kultur Elkarte, Zas kultur espaziorako.
 47. Kultur ACT Elkarte, Artgia Sorgune Aretorako.
- e) Kirolaren esparruan:
1. 5+11 Fundazioa
 2. Kirolaraba Fundazioa.
 3. Gasteizko Martín Fiz Nazioarteko Maratoia egiteko Asociación Cultural Deportiva Maratlón elkarteari emandako diru zenbatekoak.
 4. Arabako lurralde historikoa ordezkatzeko duten eta nazioartean jarduten duten kirol erakundeak emandako diru zenbatekoak. Ondorio horietarako, Saski Baskonia SAD soilik izango da lehentasunezko jarduerak.
 5. Arabako Foru Aldundia, Izki Golf gunearen barruan dagoen Urturi golf zelaian lehiaketak egiteko emandako diru zenbatekoetarako.
 6. Zuzenak kirol kluba.
 7. Zuzenak Fundazioa.
 8. Araberri Basket Club taldeari emandako diru zenbatekoak, gizarteratzeko kirol jarduerak egiteko.

f) Enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan:

1. San Prudencio lan fundazioa.
2. FOARSE, Arabako Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Foroa.

d) Gizartearen esparruan:

1. Fernando Buesa Fundazioa.
2. Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren (SAED) Adiskideen Arabako Elkarte.

h) Euskara sustatzeko esparruan:

1. Araba Euskaraz 2023 antolatzen duen erakundeari emandako diru zenbatekoak.
2. Erriozia Kultur-Elkarteari emandako diru zenbatekoak.

i) Interes orokorreko bestelako helburuetako esparruan:

1. Euskampus proiekturako Euskal Herriko Unibertsitateari emandako diru kopuruak.
2. Abastos Fundazioari emandako diru zenbatekoak.
3. Jarduera hauek egiteko Vital Fundazioari emandako diru kopuruak: Vital Fundazioaren Aretoko erakusketak, Astearte Musikalak, Euskal Zinemaren Astea, Jaibus Vitala, Vitala Araban zehar eta Araba Ekinean: Enpresa lasterketa.
4. Tubacex Fundazioari emandako diru zenbatekoak.
5. Diocesanar-Jesus Obrero Fundazioari emandako zenbatekoak.
6. Formula Student Vitoria-FSV ikasle elkarteari emandako zenbatekoak, Formula Student txapelketan parte hartzeko.
7. Gasteizko Argiztapen Jaialdirako ARGIA_3 kultura elkarteari emandako zenbatekoak.
8. Mugarik Gabeko Musikari Solidarioak.
9. Arabako Berrikuntza Irekiko eta Sormen Transferentziako Zentroa, SL.
10. Gasteiz Araba Mobility Lab Fundazioa

Bi. Era berean, lehentasunezkoak dira estatuko eta foru lurraldeetako organo eskudunek halakotzat jotako jarduerak, betiere, batak zein besteak onartutako araudiaren arabera, elkarri hala aitortzen badizkiote Arabako Foru Aldundiak foru dekretu honetan onartutako jarduerak.

3. artikulua. Lehentasunezko jarduerak kirol esparruan

Foru dekretu honen 2. artikuluan kirol esparruan lehentasunezkoak izendatutako jarduerak gain, Arabako Lurralde Historikoko emakumezkoen kirol talde eta atalei emandako diru zenbatekoak, bai eta Arabako Lurralde Historikoan garatutako kirol jarduera eta lehiaketei emandakoak ere, baldin eta haietan emakumeak badira protagonista edo emakumeen parte hartzea eta genero estereotipoak apurtzea eta emakumezkoen ezagutza soziala sustatzen badute berariaz. Hau da, jarduera horiek guztiak lehentasunezko jarduera izango dira kirol esparruan, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Kirol esparruko lehentasunezko jarduerak aitortzeko prozedura

Aurreko artikuluan xedatutako ondorioetarako, 2023ko ekitaldian, kirol esparruan beren jarduerak lehentasunezkoak izan daitezten interesa duten pertsona fisikoek eta juridikoek 2023ko abenduaren 15a baino lehen eskatu behar diote Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari. Eskaerarekin batera, lehentasunezko jarduera gauzatzen duen erakundearen proiektua ere aurkeztu behar da, alegia, lehentasunezko jarduera izan dadila eskatzen duen erakundearena, eta proiektu horrek, besteak beste, diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen bat jaso behar du.

5. artikulua. Dohaintzen, donazioen, ekarpenen eta doako prestazioen eraginkortasuna

Foru dekretu honetan jasotako zerga onurak aplikatzeko, ezinbestekoa da lehentasunezko jarduera edo programetara bideratutako dohaintzen, donazioen, ekarpenen eta doako zerbitzu prestazioen eraginkortasuna justifikatzea, Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. Azalpen txostena aurkezteko betebeharra

Foru Dekretu honen arabera 2023rako lehentasunezko jarduera edo programaren adierazpena jasotzen duten erakundeek 2024ko urtarrilean txosten bat aurkeztu beharko dute, 2023an jasotako dohaintzen, donazioen, ekarpenen eta prestazioen zenbatekoa xehetasunez azaltzeko, bai eta haien ongileak eta interes orokorreko helburuetarako aplikazioa identifikatzeko ere.

7. artikulua Zerga pizgarriak aplikatzeko mugak

Egindako ekarpena dagokion programa edo jarduera garatu eta egiteko beharrezko inbertsioen eta gastuen batura baino txikiagoa denean baino ez dira aplikatuko Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 16/2021 Foru Arauaren 31. artikuluan xedatutako zerga pizgarriak.

Muga hori gaindituz gero, ekarpen zaharrenei aplikatuko zaie zerga pizgarria.

8. artikulua. Foru dekretu honetan jasotako erakundeek emandako ondasunak eta eskaintako zerbitzuak baztertzea

Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauko 31. artikuluan xedatutako zerga pizgarriak ez zaizkie inondik inora aplikatuko foru dekretu honetan lehentasunezko izendatzen diren jardueren erakunde egileek eskaintako zerbitzuengatik edo emandako ondasunengatik egindako kontraprestazioei.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. 2024rako lehentasunezko jarduera edo programa izateko adierazpena eskatzea.

Foru dekretu honetan dauden lehentasunezko jarduerak eta programak eta araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta 2024rako eskatzen diren jarduera eta programa berriak 2024rako lehentasunezko programa edo jarduera izan daitezen, eskaera eta dagozkion agiriak aurkeztu behar dira, dagokion balioespena egin dadin eta lehentasunezko programa edo jarduera izango diren erabaki dadin.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 31

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria,

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA